

2006ko azaroaren 6tik 17ra Mondragon Unibertsitateak KALITATEAREN XII. ASTE EUROPARREAN hartuko du parte

2006/10/11

Europar komunitate osoan urtero ospatzen den ekimena da, Euskal Herrian **Euskalitek** koordinatzen duena. Aurtengo ediziorako aukeratu den lema “**esperientziarik onenak gizarte hobe baten alde**” da eta berrikuntza, erantzukizun soziala, etengabeko hobekuntza, ikaskuntza eta ezagutza bultzatzeko ingurune egokia sortzeko eta erakundeen kudeaketan bikaintasuna –modu orekatuan– konfiguratzeko duten gainerako elementuak lortzeko tokiko esperientziak eta adibide onak elkartrukatzeko duen garrantzia azpimarratzea du helburu.



Mondragon Unibertsitateak, bere aldetik, honako jardunaldiak antolatu ditu:

- *Azaroaren 6an:* **Industri Ekosistemen Garapena EAEn**
- *Azaroaren 9an:* **Arrakasta Lean-Seis Sigma proiektuetan lanean aritzean**
- *Azaroaren 13an:* **Berrikuntza Kudeatuz**
- *Azaroaren 17an:* **Kulturartekotasuna: erronkak eta esperientziak**

2003an **Mondragon Unibertsitateak** lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen Euskalitekin. Hitzarmen horren harian, kalitatea sustatzeko jardueretan aktiboki hartzen du parte; horren adibide da, esaterako, jarduera horiek antolatzea.